

# EITBko PERTSONAL POLITIKAREN AZTERKETA ETA SALAKETA

2015 Urria

>eitb



EITB Ente Publikoa eta bere sozietateak (Telebista, Irratia, EITBNET) EAEko Sektore Publikoa delakoaren barruan kokatuta daude. Ereku publikoko zein pribatuko lege eta dekretu ugari eragiten diete (ordainsariak, erreposizio tasak, lan erreformak...) baina «Administrazio Publikoa» delakoaren definizioan sartzen ez direnez, Zuzendaritzak errazago du kontrol publikotik ihes egitea. Kudeaketa sistema "malguagoa" dutela alegia.

EITB ez dago beraz sektore publikoaren murrizketatik libre, kontrakoa baizik. Hain zuzen, «behi lodiak» edo gehiegizko gastuen ondoren (trasladoa, M4F-VILAU enpresa instrumentalak...), PSEren gobernuak izan zen 2010ean soldata murrizketa ezarri ziona EITBri, eta harrez geroztik negoziazio kolektiboa blokeo egoeran dago. 2013an Urkulluren gobernuak izan zen aurrekontuetan murrizketa sozial basatiak ezarri zituen, bankuei eta jendartearentzat kaltegarriak diren egitasmoen mesedetan. Jaurlaritzak **EITBri %27ko aurrekontu jaitsiera ezarri zion, eta Zuzendaritza honek erabaki hura kudeatzeko konpromisoa bere gain hartu zuen.**

Ikusiko dugunez, EITBko murrizketek eremu askotan eragin dute: kontratak, ekoiztetxeak, langileak, kontratazioak, prekaritateak... ez ordea zuzendaritza egituran. Eta berriro diogu, Enpresa Publiko batez ari gara.

Salaketa bikoitza egingo dugu orainoan, hau da, makila eta azenarioarena. Azenarioa zuzendaritza taldekoentzat, makila langile arruntentzat. Zuzendaritzaren kasuan ez gara luzatuko, dagoeneko hainbat salaketa plazaratu dugulako eta sail sindikalaren webgunean zintzilik daude aspaldi (<http://eitb.lab.eus>). Lan baldintzei dagokienean ETBn gertatzen ari diren bidegabekeriak mugatuko gara, xehetasun gehiagorekin.

Kontua da LABentzat **prekarietatearen kontrako borroka eta gardentasuna betidanik izan direla lehentasuna ekin-tza sindikalean eta negoziazio kolektiboan**, eta borroka hauetan ez dugu bidelagun askorik izan, oztopoak bai ordea. Lan Poltsa objektiboak martxan jartzea asko kostatu zaigu, eta hauen kudeaketa ez zaigu batere erraza izaten ari, batez ere informazio faltagatik.

2

Azken hauteskunde sindikaletan langile ebentualen prekarietateari aurre egiteko inflexio puntu bat jarri nahi izan genuen, eta LABen zerrendetan langile ebentualak kokatu genituen langile batzordeetan parte har zezaten. Jarritako salaketa banagatik zerrendetatik kendu behar izan genituen ordea. Aurreko hauteskundeetan aldiz, ordezkatu ezin ditugun jostoreek botoa eman ahal ez izateko lerroa ireki genuen, baina aukera hura era bazterrean gelditu egin behar izan zen.

Orain emango ditugun datuak ez ditugu Zuzendaritzaren eskuetatik zuzenean jaso. Eskabide ugari egin eta gero, **Lan Ikuskaritzara jo behar izan dugu babes bila**. Bai eskubidezko dugun informazioa exijitzeko, bai eta irregulartasunak salatzeko ere. Kasu batzuk argitu dira dagoeneko, beste batzuk ebazteko, eta oraindik aztertzen ari garen bestelako kasuak ditugu.

## Jestoreak

Esan bezala, gatazka luzea da hau (Andoni Ortuzarrek eta bere taldeak sortu zuten), eta dagoeneko hainbat aldiz gasta, iluntasuna eta adiskidekeria publikoki eta instituzioetan salatu izan dugu. Salaketa hau ez diegu zuzenean sisteman derrigortuta sartu behar izan dutenei zabaltzen, baina sisteman boluntario gehiegi daude, eta gustura. Arazoa konpondu baino, figura hau erabiltzen jarraitzen du Zuzendaritzak, hile honetan bertan hain zuzen. Gogoratzeko datu pare bat emango dugu:

- Zuzendaritzak 113 postutik 76ra "organigrama hustu" zuela baieztatu zuenean, **soilik ezkutatu** egin zituen, euren eginkizunetan jarraitzen dute ia guztiek.
- **Nahiz eta kontratu mugagabea eduki, 45ek ez du deialdi publikorik gainditu. Inork ez du ardurarako barne deialdirik gainditu**, konfiantzako karguak omen direlako. Gehitxo, ezta? Titulazio maila ez-nahikoak, hizkuntz eza-gutzak ere argitu gabe...

- **Iluntasunaren atalean ere, ordainsariak:** soilik batez besteko soldatak agertzen dira, osagarriak zehaztu gabe gainera. Lan baldintzak ez dituzte Lan Hitzarmenaren arabera araututa.

Halere, arazoa ez da hor amaitzen. Handitzen jarraitzen du, eta badira egitura mota honek sustatzen dituen bestelako antolakuntza arazo sakonak, oso agerian ETBn:

- Zuzendaritza eta langileen arteko zubi lana baino, **eustormaren papera** betetzen dute. Zuzendaritzak ez du jakiten edo ez du jakin nahi izaten sail ezberdinetan sortzen diren arazoez.
- Taifa erresumak daude departamentu guztietan, eta **eragin zuzena du pertsonalaren kudeaketan eta kontratazioan.**
- Guztiak zaku berean "konfiantza edo zuzendaritza kargu" moduan sartuta daude, baina horietako batzuk **lan estrukturala egiten dute**, funtzioak dagoeneko lan hitzarmenean araututa daudenak baina **kontratazioa atzama- rrez eginda**. Honek gainera kontratazio ebentualean, lan poltsetan, eragiten du.

Kontraesana da zuzendaritza guztiek (Ortuzar-Surio-Iturbe) funtzionatzen ez duen **sistema garesti eta ilun** hau mantentzea batetik, eta **murrizketak eta prekarietatea** areagotzen ibiltzea bestetik.

## Kontratazioak

Salaketa honetan Euskal Telebistako kontratazio politikan zentratuko gara, baina lehenago beste bi sozietateen inguruan kontu batzuk ekarriko ditugu gogora, ikuspegi orokor bat izan dezagun (EITBn eta Radio Euskadin ez dugu ordezkari- tzarik, jarraipena egitea ia ezinezko suertatzen zaigu beraz).

## EITBNET

Ondo gogoan dugu duela urte pare bat EITBNETeko kontrata zen M4Fn egindako Enplegu Erregulaziorako Espedientea. Bere garaian sortutako kontrata fiktizioan kaleratze ugari eman behar izan zen, pertsonal politika zehatz baten ondorioa alegia. Politika hark ere hainbat langile salaketak jartzera eraman zituen, legez kanpoko lagatzeagatik, eta epaileek langile hauentzako kontratu "mugagabe ez finkoa" aitortu die. Iaz EITBNETen plantila estrukturala sinatze- ar egon ginen, bi aldeok oraingo egitura handitu beharreko plaza kopurua 27koa izatea onartu ondoren. **Zuzendaritzak negoziatzeko borondaterik eza argi utzi du, eta arazoak ager daitezke beraz.**

3

## Eusko Irratia

Eusko Irratiko kontratazioen erregularizazio prozesuaren nondik norakoak ezagunak dira. Berrero ere kontratazio politika negargarriaren ondorioa izan da prozesuan gertatutako ezbehar guztiak. Hasieratik gauzak ondo egin nahi ez izateaga- tik, eta gaizki egiten jarraitzeagatik. Gogoratuko dugu **LABek Lanpostuen Deialdi Publikoa azken muturrera erama- teko, kontratazioak lan poltsa objektiboen bidez egiteko eta datorren urtean egiturako plantila negoziatzeko lan egiten jarraituko duela.**

## Euskal Telebista

Esan dugu langile batzuk euren aldetik edo LABen ekimenez jarritako salaketa batzuk ondorioak izan dituztela, kontra- tazio mugagabe ez finkoen bidez edo kalte ordainen bidez. Bidean dauden beste salaketa batzuk izango dituzten ondo- rioak ezin ditugu aurretik ezagutu, noski, baina kezkatzeko modukoa da.

Lan Poltsa ez da erabat betetzen ari, eta soilik azken deialdi publikoan ateratako lanpostuetan. Halere lehen iristea ezi- nezkoa egiten zitzaigun informazioa biltzeko aukera eman digu, behin behineko langileen nominen bidez.

Azpimarratuko ditugu bidean dauden sei salaketen nondik norakoak, guztiak Bilboko egoitzari dagozkienak. Miramonen datuak biltzen hasi berriak gara, baina Bilboko kasuistika guztiak ematen ez badira ere, ondorio berdintsuak aterako ditugu seguruenerik:

## 1. Bekadunak

- Ez dira kontratatzen egiten ari diren ikasketekin bat datozen lanak egiteko, lortzen ari diren titulazioarekin bat, alegia. Errealizatorerako (lizentziatuak) bekadun kontratuak egiten dira eta beheko mailako lanak egiten dituzte (LH edo Goi Mailako Graduatuak).
- Ezin dute lan harremanen eginkizunik bete, ezta lanpostu bat ordezkatu (RD 592/2014 uztailaren 11) ETBn deitzen diren "superbekadunek" **Egiturako lanpostuak** betetzen dituzte. Udan sailen batean soilik bekadunak egon dira.

## 2. Praktikak (420/520)

2015eko irailera arte 7 kontratu egin dira.

Batez ere kontratazio mota hau ebentualitate handia dagoen Errealizazio Laguntzaileen kolektiboan ematen da (soilik 3 finko daude). Azken urteetan arratsaldeko eta asteburuko txandak txandakatzen diren praktiketako bi kontratuekin; iraupen ezberdineko bizpahiru lan kontraturekin (402/502); eta inoiz %100ean egiten ez diren lan pilaketako (401/501) hainbat kontraturekin betetzen dira

Honek Lan Poltsako kontratazioa jaisten du eta ondorioa da **figura hau soilik dirua aurrezteko erabiltzen dela**.

## 3. Lan pilaketak

402/502, 2015ean 1410 kontratu – 6.551 lanaldi.

- Gero eta kontratazio gehiago egiten da "lan pilaketatik" eta **lanaldiaren %100etik behera**.
- Kontratuen arazoak **ez datoz bat betetzen diren eginkizunekin**, edota ez dira zehazten.
- Emanaldi arduradunen kasuan urteetan 180 eguneko kontratuak egin izan dira. Hauek amaitutakoan beste ebentual batzuk jarraitzen dute, legez kontrakoa dena.
- Gainontzeko kolektiboetan 14 egunetik beherakoak izaten dira. Horietako **15-20 bat kontratu 35 langileren artean** banatzen dira, horietatik soilik 7 daudelarik egun lan poltsan.
- Oso larria da esplotazio sailean ematen dena, non ez dira ematen **5 egunekoak baino kontratu luzeagoak**. Gerta daiteke langile bera astelehenetik ostiralera bost kontratu edukitzea. Astebete baino motzagoako kontratazioetan:
  - **Otik 12 ordu egin arte ordu normal** bezala ordaintzen dira. Arratsaldeko txanda bada eta 24:00tik pasa ezkerro bi egun bezala jotzen dute, orduak bi egunetan zatikatuz. Horrek aparteko orduen, gauekoen edota balizko gehigarrien kalkulua zailtzen du.
  - 5 egun (edo gutxiagotan ere) 35 ordu egin ezkerro aste horretan ez zaie gehiago kontratatzen. Honek bi ondorio ditu: lan poltsan saltoak ematen dira eta **ez dute Gizarte Segurantzaren aste osoa** kotizatzen.
  - Lanaldi batean 12 ordu gainditu ezkerro, gehiegizko orduak aparteko ordu gisa hartzen dira eta hurrengo kontratuari gehitzen zaizkio.  
Lanaldiaren iraupenaren aurreikuspena ez bada betetzen, soilik egindako denbora ordaintzen da (adibidez, 10 ordurako planifikatu, eta soilik 8 ordu lan egin). Legala izan liteke, baina guretzat gehiegikeria da.
  - Bost egunetan 35 ordu gainditu ezkerro, gehiegizkoak ez dira aparteko ordu bezala hartu. Zalantzak ditugu 7 egun kotizatu beharko ziren batez ere gainontzeko bi egun horietan beste norbait kontratatua izan bada.
  - Gero eta ohikoagoa da %100etik beherako kontratuak ikustea, nahiz eta kasu askotan betetako lanaldiak %100a gainditzen diren. Osagarriak ere proportzio horretan murrizten dira.

## 4. Obra kontratuak

401/501 - 8 kontratu, beti %80 edo gutxiagoan.

**Kontratu guztiak legez kanpo** daudelakoan gaude: Kontratuetan ez da zehazten kontratuaren arazoia

"Autonomia eta funtsa (sustantividad)" printzipioak ez dira inoiz betetzen. ("debe contar con su propia singularidad, contar con una organización diferenciada o específica respecto a la actividad normal y/o que tenga unos resultados

*específicos diferentes a los habituales).*

Ondorioz kasu gehienetan soilik 9 hilabetez egoten dira altan emanda, eta kontratuak zehazten duen proportzioan.

## 5. Ordezkapenak (947 kontratu – 5.295 lanaldi)

**Ez dira %100erako egiten**, batez ere kiroletan, eta kontratu hauek oporreatatik egiten ez direnez bestelako iruzurrak egitera jotzen du Zuzendaritzak.

## 6. Erreleboa:

Hainbat kasutan ordezkapena **ez da talde profesional berdinerako** egiten.

## Ondorio batzuk

Aipatu dugu jada Zuzendaritzak informazioa eman eta gaiari heldu nahi ez izateak Lan Ikuskaritzan salaketak jartzera eramaituela. **Ilunkeria eta inposizioa**. Esan beharra dago ere informazioa lortzen joan garen heinean aztertu beharreko bidegabekeria berriak antzeman ditugula. Honetan **oso lagungarria izan da Lan Poltsa aktibatu izana**, ez dela erraza izan, gardentasun maila bat eman duelako iruzurra azaleratuz. "Alfonbra altxatzen" jarraitzen dugu.

EITBko Zuzendaritzak ez du inolako borondaterik eduki konponbide bat bilatzeko. **LABek eta Ikuskaritzak berak ere bestelako aukera lojikoagoak** (eta lege barruan noski) eskaini izan ditu (aldizkako kontratu finkoak, interinoak...) Ezin da onartu kontratazio irregularrak egitea, edota "mugagabe ez finko" delako figura absurdoa behartzea, kalte-ordainak ordaindu behar izatea... Ondo legoke jakitea orain arte **EITBk zenbat diru alferrik gastatu duen kalte-ordainetan eta aholkularitza juridikoak kontratatzen**. Eta bide batez jakin nahi genuke ere noiz eta nola eskarmentatuko duen.

Jestoreen eta ebentualen kontratazio politika honek ilunkeria, adiskidekeria eta prekarietatea bultzatzen dituela argi dago. Baina baita, EITBren sorreratik bertatik ematen den **kontrol ideologikoa** ere. Lehenengo kasuan kudeaketari begira **zuzendaritzarekiko lotura instrumentala** bilatzen da; bigarrenean batez ere erredakzioan du arriskua, izan ere ezaguna da **komunikabideetan prekarietatearen mehatxuak autozentsuran** izaten duen eragina. Hemen eta komunikabide publiko batean gainera.

EITBko enpresetako egiturako plantila berriz aztertzeke garaia iritsi da, garbi gelditzen delako aurrekontuetan agertzen diren zenbakiak faltsuak direlako, eta horrela Zuzendaritzak bere burua tranpak egitera derrigortuta ikusi ohi du. Baina horretarako ezinbestekoa da **gardentasuna eta zintzotasuna**, EITBko agintaritzetan oraindik agertu ez diren bi kontzeptu. **Ez zaigu inondik ere balio Zuzendaritzak "borondate ona" "elkarlanerako asmo eta fede ona"** bezalako hitz hutsalekin etortzea, edota ez jakinarena egitea. Arazoaren berri aspalditik du, eta gogorki eztabaidatu izan dugu ere. **Hitzetatik ekintzetara** pasatu behar du zuzendaritzak.

Amaitzeko hain zuzen, konponbidean dagoen oztopo nagusia seinalatu nahi dugu: Andoni Ortuzarrek jarri zuen Pertsonal Zuzendaria den Javier Salcedo da sistema hau abian jarri zuena. Alberto Suriok ere bidegabekeria hauek baimendu zituen, eta hark ere hitz soil ez harantzago ez zuen deus egin konpontzeko. Maite Iturbek ere bidea libre uzten dio pertsonal politika bera aurrera eramaten. **Badakigu konponbidea ez dela zuzenean honela etorriko, baina edozein konponbide ezinbesteko baldintza honetatik pasatzen dela argi dugu**. Administrazio Kontseiluko LABeko kideak jada eskatu zuen. Sail sindikalak ere Zuzendaritzari aurrez aurre exijitu zion. Aste honetan bertan publiko egin dugu EITBko, EITBko eta EITBNETeko Langile Batzordeek eta Eusko Irratiko LABek ere exijentzia hori egin dute. Gaurkoan berriro publiko egin dugu exijentzia zehatz hori: **Javier Salcedo Bilbao kargutik kendu** behar du Zuzendaritzak.

**Loturak:**

- EITBren gardentasuna soilik alfonbraren gainean (2015/6/12 Zuzendaritzak eitb.eus atarian jarritako "gardentasun" dokumentuari kritika: <http://eitb.lab.eus/?q=node/671>
- EITBko kontratazio eredua, txarretik okerrera (2015/3/25): <http://eitb.lab.eus/?q=node/659>
- Euskal Telebistako zuzendaritza da orain LABen Miramongo hautagai ebentual bat inpugnatu duena (2014/12/22): <http://eitb.lab.eus/?q=node/632>
- Hauteskunde mahaiak LABen hautagai bat atzera bota behar izan du ETB-Bilbon (2014/12/04): <http://eitb.lab.eus/?q=node/627>
- EITBk organigrama soilik makilatu eta adiskidekeriaz kontratatzen jarraitzen du (2013/7/24): <http://eitb.lab.eus/?q=node/509>
- EITBko kudeatzaile egiturari buruzko gogoeta (2013/7/24): <http://eitb.lab.eus/?q=node/508>
- EITBko Zuzendaritza berria proiektu eta aurrekontuak adostu ezinean orain (2013/3/12): <http://eitb.lab.eus/?q=node/419>